

Astekaria

BARREN elgoi

Laino guztien azpitik eta sasi guztien gainetik




foto | azkue

San Bartolome 26 - Tel. 74 08 48
20870 ELGOIBAR

- Esan ezazu argazkiekin
- Oroigarririk onena dira
- Jar zaitetz profesional baten esku.

Udaberri uda KANPAINA 94

TXANKAKUA
EROSKETA TXEKEA

40.000 Pta.

TXEKE HONEN ORDEZ

PEZETA.

HERRIA ETA DATA LETRAZ IDATZI

1994-6-30 baliogabetzen da.

Jabearen izenpea



oparia zuretzat

TXANKAKUA elkarteko edozein zerbitzu-etxean erosteagatik,
zure lankidetzan eskertzeko, zozketatuko ditugun
6 EROSKETA-TXEKEetako bat irabaz dezakezu.

KANPAINA: apirilak 4tik ekainaren 4ra. **ZOZKETAREN DATA:** Ekainak 6



elgoi**BARREN**

Nafarroa enparantza 2

☎ 74 41 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA:

Alberto Agirreazaldegia

HIZKUNTZA ARDURADUNA:

Anjel Ugarteburu

ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Iñaki Arrieta, Antton Bergara,

Eduarne Bilbao, Rosa Iriondo,

Jose Inazio Sarasua

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso

Jasone Osoro

MAKETATZAILEA:

Maite Rementería

PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz

ADMINISTRAZIOA:

Josune Fernandez,

M. Angeles Ortuoste

KOLABORATZAILEAK:

Iraiti Agirreazaldegia, Itziar

Agirregomezkorta, Ana Aizpiri,

Myriam Aldazabal, Isabel Ansola,

Nere Arostegi, Gotzon Arrieta, Pello

Arrieta, Belen Arrizabalaga, Ainara

Burgaina, Urtzi Etxabe, Asier

Etxaniz, Sugar Etxaniz, Felix

Etxeberria, Izaro Etxegibel, Eneiz

Ezenarro, Itziar Fernandez, Jose

Mari Galdos, Ina Garagarza,

Gotzon Garate, Amaia Gorostiza,

Alfonso Guillo, Maite Iriondo, Ekaitz

Isasi, KOKOE, Enrike Larrañaga,

Imanol Larrañaga, Haritz Leon,

Jesus Mari Makazaga, Aitor Maya,

Iñaki Odriozola, Ixa Sanchez,

Eduardo Sanz, Jose Inazio Sarasua,

Ohiana Tarragual, Alain Ulazia,

Olga Unzilla, Igor Vazquez, Ana

Vila, Miryam Villasante, Alaitz

Vives, Aitor Zabaleta, Yulen

Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.


(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.300 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Nire heroia telebistaz

Eta azkenean azaldu da nire heroia telebistaz; bizi dela dirudi.

Erritualik ez da izango, ez eta gidoi jakinik ere; bapatean erantzun beharko ditu galderak, datorkionari beharko zaio atxeki, heroiek ohi dutenez, azpijokurik gabe.

Ikustagun bada zer datorkigun:

Izkutuan grabaturiko irudi bat; biluzik dago, makilariarik gabe eta zakil erraldoiak pantailaren txoko guztiak betetzen ditu. Bere harridura keinua, exageratu zein patetikoa, ez nuen espero, berak irudi hau espero ez zuen bezela.

Haserretu egin da, oihuka hasi, aurpegiak ez dio itxura onik hartu; zorionez ez da bere oihurik aditu, narratzaile txukunaren ahotsa bakarrik, zeinak behin eta berriz zera ziurtatzen baitu:

‘Hona bere zakila, dena giza kakaz zikindua. Hona bere zakila...’ Bigarren irudi bat ondoren, aski ezaguna, har eta zizare pozoinduak sudurrean barna garunalderra

doazkio. Kafea hauts zuriren batekin gozaten duen bitartean whisky botila trago batez hustutzen du.

Gehiegizkoa iruditu zaio azkenengo hau, sututa dago nire heroia, itxututa, builaka (nahiz ez aditu zer dioen). Ez nuen hau espero, lasai egoten jakin beharko luke. Histeriaz jotako ume negartia dirudi, jendeartetik jaiki berri den horren antzerakoa. Bere seme-alabak erakusten ditu, bere miseriak kontatzen, negar batean behatza nire heroia zenari zuzenduz.

Beste bat orain; honek psikologoaren sinadura erakutsiz, pairatzen duen trauma leporatzen dio garraisika, erdi negarrez, baina ez da deus ere entzuten, narratzaileak ordenagailua bailitzan darrai.

Ez nuen hau espero, heroia eroa azkenean, mikrofonoa kendu dio narratzaileari eta uuuuuuhhh’ akabo. Ekaitza dugu, nonbait, Oiz aldean.

Asier Etxaniz

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*



? GALDERAK

Herritar batek deitu digu Elgoibarko euskaldunen eta erdaldunen portzentaiak ea zeintzuk diren galdetuz:

- Euskaldunak: 6.481 (%56,18)
- Ia-euskaldunak: 1.501 (%13)
- Erdaldunak: 3.554 (%30)
- GUZTIRA: 11.536 biztanle. (1991. urteko erroldako datuak)

! KEXAK

Ikastolako 7. mailako hamabost bat neska etorri dira Polikiroldegiaz kexatzeko. Aste Santuko oporrak, euria etengabe eta futboleko jolasteko gogoa. Joan dira Polikiroldegira intentzio horrekin eta 100 pezeta ordaindu behar dutela sartzeko nahi badute. Eurak ezetz, hogeiko asko dela eta ez dutela ordainduko. Polikiroldegitik BARREnera, egin dietena kexatan sartzeko bezalakoa dela esanaz. Agindu genien eta baita bete ere.

! TXALOAK

Aste honetako txaloak Elgoibarko lorategiak prestatzen eta zaintzen dituztenentzat dira. Irakurle batek esan digu benetan polito laga dituztela herrian dauden zelai eta jardinak.

ESKUTITZAK

100 kilometro baino gutxiago

Orain dela zortzi urte, apirilaren 26an, Chernobyleko zentralak orain arte instalazio nuklearretan ezagututako istripurik larriena jasan zuen. Hala ere, eta informazio mailan egon den boikota alde batera utzita, jakin badakigu orain arte 8000 pertsona inguru hil direla eta beste 3.500.000 gutxi gora behera kutsaturik daudela. Gainera, kopurua hau gehitzea espero da hurrengo hamarkadetan.

Inguru kutsatuetan bizi diren hiru haurretatik batek arnasketa gaisotasun ezberdinak nozitzen ditu. Odoleko gaisotasunak, minbizi mota ezberdinak... besorik gabeko umeak, era guztietako malformazioekin, hauetako asko sendaezinak. Garapenaren ondorio dira (garapena edozeren ganetik); gizakia teknikaren gatibu bilakatzearen ondorioa.

Nor ausartzen da esatera gai honek ez duela zer ikusirik elgoibartarrekin? Urrunago joan gabe, 100 kilometro baino gutxiagora daukagu Garoñako zentral nuklearra (Chernobylekoaren antzekoa). Aurrez programatuta ez zeuden

geldialdiei begiratuz gero, honek Estatu espainiarreko errekor guztiak hautsi ditu. Hauetako bat, 1991ko apirilaren 18koa, eta oso larria.

1985 urteaz geroztik, Ebrora 264.000 litro ur erradiaktibo isuri dira, gutxienez. Ur horiekin, Nafarroako Erriberan eta Arabako hegoaldean, baratzak ureztatzen dira. Horrela, elikadura katearen bidez, erradiaktibitatea gure gorputzera igortzen da bertan pilatuz.

Seguritate Nuklearreko Kontseiluak isotopo erradiaktiboen existentzia onartu du (zesioa-137 35q kobalto-60) Ebroko sedimentuetan.


Hau ez da lau ekologista zororen gauza, baten batek esango lukeen bezala, zeren eta Gazteizeko Udala, Errioxako Parlamentua, Aragoako Gorteak... eta beste askok zentral hau isteko eskatu baitute.

Kilometro gutxi dago Garoña eta gure artean, kontutuan edukita istripua jasan zuen Chernobyleko erreaktoretik, 180 kilometrotara zeuden herritarrak, urrutiago zeuden beste leku batzuetara eramane zituztela.

Egin dezagun zerbait amets gaizto hau gugana iritsi baino lehen!

Fernando Salegi
Eguzkiko partaidea

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





Aste honetako erretratua **Joakin Gurrutxagak** lagatakoa da. Aste Santuko ajeak oraindik pasa gabe dauzkagunez, aproposa iruditu zaigu ohitura zahar bati buruzko erretratua argitaratzea.

Erretratua 1947. urtean ateratakoa da eta ikus dezakegun bezala, Parrokiko elizaren parean aterata dago. **Primitivo Martinezek** esan digunez, Ostegun Santuan eta Ostiral Santu egunean prozesioa egiteko ohitura zegoen Elgoibarren. Plaza handian hasi, Maalaraino bajatu eta berriz ere Plazaraino bueltatzen omen ziren prozesioan. Arratsaldez egiten ziren

eta herri osoa joaten omen zen, bakoitzak armarioan zuen arroparik dotoreena jantzita.

“Primi”k ezin izan du erretratuan azaltzen diren guztien izenik jakin, baina banaka batzuk ezagutu ditu. Zeintzuk? Erdiko jende-ilaran:

Jose Izagirre, Benito Bastida, Larrea, Pakotxo Zubiaurre, Julian Garai, Antonio Azpiazu eta Pakito Muñoz identifikatu ditu.

Eskuma aldean, berriz, bat baino ez du ezagutzen: **Eduardo Agirre.**

Beste gauza asko bezala, ohitura hau ere galdu egin da Elgoibarren. Zergatik? Akaso norbaitek jakingo du.

ARMUETA
 Baserriko haragietan berezia

Harategi Urdaitegia
 San Bartolome, 16. ☎ 74 06 40


karkizano
 San Franzisko 12-14, Tel. 74 05 49

Arrieta
modak
 San Bartolome 18
 ☎ 74 08 49

Maria Urizar
 ileapaindegi mixtoa
 Errosario 9-1ezk.
 ☎ 74 44 89 ELGOIBAR

Elgoibartarrak Ruandan

12 ordu hegazkinez eta 8000 inguru kilometrotako distantziara dagoen herrialde batean, Ruandan hain zuzen, proiektu berezi bat lantzen egon dira Elgoibarko eta Zarautzko bi senar-emazte. Elgoibartarrek, Juan Rodriguez eta Izaskun Soraluze ditugu. Proiektuaren buru Martxel Aizpurua biologoa izan da eta Izaskun eta Juan, Martxelen laguntzaile gisa aritu dira. Ruandan bizi izandakoari buruz berbetan egon gara "espedizio"ko kideekin eta Ruandarako proiektu hori zer den azaldu digute.



■ ■ Arantza eta Martxel, eta Izaskun eta Juan Ruandako taberna batean.

Ruandako Gijara herrialdean, hiru misiolari gipuzkoar bizi dira. Haue-tako misiolari bat duela bi urte Euskal Herrian egon zenean, erlagintzarekin lotu-tako proiektu bati buruz hitz egin zion Martxel Aizpuruari. Martxel, biologoa da eta eraluntzak edukitzeaz gain, gaia sakon ezagutzen du.

Eztia egiteko aintzinako sistemak dituzte Ruandan. Erlauntzak edonon daude eta dirua ematen duela esan nahi du horrek.

Honek Juan Rodriguez elgoibartarrari proiektuaren berri eman zion eta biak, abenduan abiatu ziren Rwandantantz, lana aurreratzeko asmoarekin. Izaskun Soraluze eta Martxelen emaztea, hiru aste beranduago heldu ziren Ruandara.

Ruanda, erle mordo duen herrialdea da. Erlagintzan ere tradizio zaharra du, baina aintzinako sistemak erabiltzen dituztenez, ez diote behar adinako probetxua ateratzen. Euskaldun hauen proiektua, Ruandan erlauntza modernoak martxan jartzeko aukerak aztertzea izan da ahalik eta probetxu gehien ateratzeko eztiari. Horregatik, Martxelek dioen bezala, ez dizkiete erlauntzak erregalatu edo emango. Beraiek egindako eztiaren truke salduko zaizkie. Martxelen ustetan, horrek horrela behar du izan,



■ ■ Erlantzan tradizio luzea du Ruandak.

bestela erregalatutakoa ez da behar bezala estimatzen. Horrela ezta bera promozionatuko litzateke eta produkzio katea bultzatu.

Erlauntzak, tradizio luzea

Martxelen esanetan, ezta egiteko aintzinako sistemak dituzte Ruandan. Erlauntzak bazter guztietan omen daude eta dirua ematen duela esan nahi du horrek. Bestalde, ezin du diru gehiegi eman dio Martxelek eztiaren prezioa oso garestia delako. Daturik ez omen dago, dagoen ezta ez baitute ez pisatzen ezta kontrolatzen ere. Egoera larri honetan, bertan dauden misiolari euskaldunek erlauntzak eduki omen dituzte eta uzta onak ateratzen. Martxelen ustetan, erlauntzak eman dezake, baina prebisioak egiten eta beren ekonomia antolatzen eta planifikatzen ikasi beharko dute. Martxelen iritziz, "gure asmoa erlauntzak, ezti ontziak eta orokorrean honekin lotutako guztia bertakoek egin ditzatela da. Proiektu integrala erai-



■ ■ Martxel, Arantxa, Izaskun eta Juan bertakoekin batera egun pasa joan ziren batean.

kitzea nahi dugu. Arazoa da beraiek proiektuaren ardura hartu behar dutela eta hori nahiko zaila ikusten dut".

Herialde anitza baina pobrea

Ruanda nazio pobrea dela esan digute elgoibartar hauek. Herialde txikia da. Nekazal produktuak nahiko ondo hazten dira klima aproposa dutelako. Kafe sailak, bananak, babarrunak,

Lur sailak oso banatuta daude eta superpoblazioaren arazoa sekulakoa da.

artoa... ingurune bariatua dago. Lur sailak oso banatuta daude eta superpoblazioaren arazoa sekulakoa da. Ume bat eskola batean hiru hilabetean egoteak, 80 pezeta kostatzen zaie. Arazoa da ez dutela 80 pezeta horiek lortzerik.

Arraza zuria, ez da Afrikako gainontzeko leku askotan bezalaxe, arraza menperatzailea. Ez. Ruandan apenas dagoen arraza zuriko pertsonarik, eta daudenak, apaizak, medikuak eta enbaxadetako langileak dira. Zuriak "bitxo arraroak" omen dira han. Afrikako beste leku batzuetako miseriaren arrazoia zurien dominazioa bada ere, Ruandan ez da horrela gertatzen.

Diru laguntza handiko proiektu faraoniko askok egin omen du porrot Ruandan. "Horregatik, -dio Martxelek bere proiektuari buruz,- "hobe da kandela txiki bat piztu eta hura mantendu, eta ez itzelezko sua egin eta inguruko baso guztiak erre".

Eskolak sortzeko laguntza

Erlagintzari buruzko proiektuan lan egiteaz gain, turismoa ere egin dute elgoibartarrek. Paraje ikaragarriak omen ditu Ruandak. Bertakoek Kinyaruanda hizkuntzan hitz egiten dute eta atzerritarrekin frantsez aritzen dira. Herialde pobrea izateaz gain, gerran daude orain dela lau urtetik. Egoera benetan latza bizi dute Ruandan. Eguneroko bizitza erleen artean pasa eta gero, Izaskun Soraluzek eta Martxelen emazteak zentru nutrizionalak deitzen diren laguntzen zuten. Ruandarrek laguntza beharrezkoa dute arlo guztietan. Erlauntzen kontuak martxan jarri eta aurrera egingo balu, laguntza puntuala ematera joateko prest egongo liritekeela esan digu laukoteak. Bestelako laguntza ere luzatzeko asmoa badute, ideia berriak, informazioa eta eskolako materialea bidaliz, adibidez. Orain, esan digute, Lanbide Heziketako eskolak sortzekotan omen dabilta Ruandarrak eta, hemen, Euskal Herrian, soberan dagoen materialea bertara bidaltzeko asmoa dute. Arazoa, ordea, materialea hara bidaltzea oso garesti ateratzen dela da, horregatik, modu merkeagoa topatu arte itxaron behar.

Fotero

OKINDEGIÀ
OPILDEGIÀ

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

TXIRIBOGA

Taberna

GOSARIAK, PINTXOAK
ETA OTARTEKOAK
Plaza merkatua 23-24

BATZOKIÀ

JATETXEA
ETA
TABERNA

P. Muguruza ò. ☎ 74 08 21

I
L
E
A
P
A
I
N
D
E
G
I
A

FADEK

SOLIDARIUM

Errosario Nalca, 35 behe
☎ 74 26 92 Elgoibar

Tik-Tak

BATAIO
ETA
JAUNARTZE
JANTZIETAN
ESPEZIALISTAK

Errosario 21, ☎ 74 17 15 ELGOIBAR

PINTURAK

- Fatxadak
- Komunitateak
- Mota guztietako lanak

San Roke 30 behe Tel. 74 36 52

ASTE HONETAN

Aste Santua: oporretarako ala otoitzerako?

Arratsalde batean kalean geratu eta zera eskatu zidaten: Aste Santua eta oporren inguruan artikulu bat idaz nezan. Haseran ezetza eman nuen, baina hemen nago idazteko prest. Nik neure esperientzia kontatu nahi dut eta nola bizi izaten dudana.

Aste Santua opor eta aisialdi garaia dela uste du jende askok. Nik errespetatzen ditut, baina ez naiz iritzi berekoa. Ulertzen dut jendeak deskantsatu eta irten nahi izatea baina krisi garaian egonda ez dut ikusten horrelako beharrik. Aste Santua, zoritxarrez, publizitate-gai bihurtu dute: atzerrira bidaien iragarkiak nonnahi, apartamentuak alogeran e.a.

Aste Santuak ez du niretzat, zentzu hori. Oso gutxi gara Aste Santuaz den bezala gozaten dugunok: Jaunarekin bizi bere heriotza eta piztuera. Askok esaten didate nola egon naitekeen hemen Aste Santuan, egun guztia Elizan sartuta. Oso aspergarria dela eta Eliza eta apaizen gauzak direla esaten didate. Nik ere, berdin pentsatzen nuen lehen. Aste Santua opor laburrak zirela uste nuen, baina behin esperientzia zoragarria bizi izan nuen: Jaunak bere "argia" bidali zidan eta Bera zein zen deskubritu nuen.

Aste Santuak Jaunarengandik gertuago egoten laguntzen dit. Nire fedea sendotzen laguntzen dit. Hausnarketarako aukera ematen dit eta aurrera segitu eta bizitza begi onez ikusteko indarra ere bai. Baina, batez ere, sufritzen dutenekin elkartasunean egoten laguntzen dit. Zoritxarrez asko dira sufritzen dutenak eta gutxitan izaten ditugu gogoan, nahiago izaten dugulako inorengatik estutu gabe ahalik eta hobetoen bizitzea.

Jaungoikoari eskerrak ematen dizkiot begiak ireki dizkidalako. Egunen batean beste askok nik izandako esperientzia edukitzea espero dut eta Jaungoikoaren eskutik bere "argia" jaso dezaten: maitasunaren argia, alegia.



ARANTXA ARMENDIA

Nola bizi duzu Aste Santua?



ADOLFO LOBETE
30 urte, zeladorea

Neretzat opor garaia da, ez dut sinisten eta. Gazte gehientzat oporrak dira, beharbada nagusien artean ezberdina izango da.



MARIA JESUS AZPIAZU
52 urte, moja

Kristaumentzat egunik pozgarrienak dira. Jainkoaren maitasuna ospakizun berezien bidez bizitzen dugu eta deskantsurik ere izaten dugu.



MAITE TXURRUKA
34 urte, administraria

Disfrutatzeko garaia da. Guri edurra dauanian eskiatzera urtetzia gustatzen jaku. Txikitan beste era batera ospatzen gendun.



MIGEL ANJEL CANALES
33 urte, aseguru saltzailea

Eliza giroan ez, familia-rekin bizi izaten dut, lasai. Oporretara irteten gara normalean. Erlijioa barrutik eraman behar dela uste dut.



MARI PAZ PEREZ
57 urte, etxeoandrea

Eliz giroan sakonago bizitzeko garaia da, prozesioak ere gustatzen zaizkit. Debozioz bizitzen dut eta kanpoan banago ere elizara bisitaxoa egiten dut.



PAKO IRIONDO
67 urte, jubilatua

Lehen beti mendira, baina gaur ez. Elizako hartu emana jarraitxu egin bihar da. Barixaku santua eta pazku eguneko meza gustatzen jataz.

**ASESORIA
GOAR**

AHOLKULARITZA

- . KONTABILITATEA
- . AHOLKULARITZA FISKALA
- . LAN AHOLKULARITZA
- . ALLIANZ ERCOS ASEGURUAUAK
- . MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAUAK

San Bartolome 1 behea. Tel: 74 26 74- 74 02 34. Fax: 74 21 29

KAFETEGIA
74 42 65

■ Intsumisioari buruzko elkarrizketa-etzabaida

Elgoibarko Talde Antimilitaristak intsumisioari buruzko elkarrizketa-etzabaida antolatu du datorren ostiralerako, hilak 15. Elgoibarren bost gazte intsumiso (hauetariko bat dagoeneko epaitu dute) epaituko dituzte datozen hilabeteotan.

Elkarrizketan gartzelatik irten berri den intsumiso bat, NIESEko (Nafarroako Intsumiso eta Eragozleen Senideen Elkarteko) guraso bat eta intsumisoen abokatu bat izango dira. Moderatzaile lanetan Elgoibarko Talde Antimilitaristako kide bat arituko da. Elkarrizketa ahalik eta objektiboena eta pluralena izateko, Elgoibarko Talde Antimilitaristak dei egiten die herriko erlijio, aisialdi, kirol zein kultur elkarte eta enpresa, sindikatu, alderdi politiko eta abarrei ere bai. Ekitaldia Kultur Etxean burutuko da 6,30etan.

■ Sukaldaritza ikastaroa

Datorren hilaren 12an, asteartea, sukaldaritza ikastaroa hasiko da Elgoibarko EAJ alderdiak antolatuta. Astean bi egunetan izango da ikastaroa, arratsaldeko 5etatik 7etara bitartean eta 6 asteko iraupena izango du. Plazak mugatuak dira, beraz, lehen bait lehen Foru Enparantzako Batzokian izena eman, arratsaldeko 6etatik 8ak arte.

■ Txankakuak Udaberri-Udako kanpaina kaleratu du

Txankakua elkarteak, Elgoibarko Merkataritza eta Zerbitzarien elkarteak, udaberri-udako kanpaina hasi berri du. Ohikoenez, Txankakua elkarteko denda guztietan 40.000 pezeta 6 eros-txekoen zozketarako txartelak banatuko dira bezero guztien artean. Kanpaina apirilaren 4an hasi zen eta ekainaren 4ra arte luzatuko da. Zozketa ekainaren 6an egingo da notario aurrean.



Tapia abeslari eta soinu-jole ezagunak kantaldi bikaina eskaini zuen Kultur Etxean, joan den hilaren 24an, AEKk antolatutako ekitaldian. Ordu bete iraun zuen kantaldian Tapiak "Tapia eta Leturia"ren errepetorioko abestiak jo zituen. Tapiak rock'an rollaren eragina euskal musikan eta batez ere, trikitixarekin duen harremana erakutsi zuen. Kantaldia AEK euskaltegiak Gipuzkoako Aldundiaren laguntzarekin urtean zehar antolatzen dituen ikasleentzako ekintza programaren barruan burutu zen.



Elgoibarko Motorzaleek Herri Kirolen lehen txapelketa burutu zuten San Roke auzoko Erretxindi baserri inguruan joan den hilaren azken astebukaeran, beraien arteko apustu bat zela eta. Apustua, hainbat herri kirol froga burutzeari zetzan, aizkora, trontza, harri biribila, txingak, kaskara batzea eta sokatira. Bi taldetan banatu ziren motorzaleak: urdinak eta gorriak. Txapelketa hasi eta urdinak aurreratu ziren nabarmen. Froga guztiak burutu ondoren, urdinak nagusitu ziren. Apustua galdu zuen talde gorriak Erretxindin bertan dagoen Roke tabernan bazkaria ordaindu behar izan zion talde urdinari, apustua horretan zetzan eta. Motorzaleek esan digutenez, Herri Kirolen lehen txapelketa hau giro ezin hobean burutu zen eta berriro ere antolatuko dutela gaineratu. Txapelketaren gorabeherak jarraitzea auzotar eta herritar mordoxka urreratu ziren.


Altzolan Kilimongo ura jasoko dute



Altzolatarrek jasotzen duten uraren egoera ez omen da oso ona, antza. Aspaldian egin diren analisisiek diotenaren arabera, uholdeak direla medio edo zenbait obraren ondorioz, besteak beste, uraren kalitatea ez da izan beharko lukeena bezain baldintza onean ematen. Horregatik, Gipuzkoako Diputazioak eta Elgoibarko Udaletxeak, elkarlanean, zenbait obra bultzatuko dituzte hartara, Altzolan ere merezi bezalako ura jaso dezaten.

Orain arte, Altzolan, ura Deba ibaitik zuzenenan hartzen zuten, katazio sistema propio baten bitartez. Elgoibarren jasotzen dugun ura Mendarotik ekarria da, Kilimon errekatik, eta Altzolan hartune bat eraikiz, bertara ere bideratu nahi dira ur hauek.

Aurrekontua 3.600.000 ptakoa izango da, gutxi gora behera, eta proiektua "Ignacio Garmendia" enpresaren esku geratu da.



Morkaiko Mendizale elkarteak Aste Santuko oporretarako antolatutako Pirinioetako Gavarnie-n ateratako argazkia da honako hau. 30 elgoibartar izan ziren 1.300 metrotara dagoen herrixka honetan eta oso ondo pasa omen dute elurrez estalita egon badira ere. Mendi gailurreratarata igotzerik ez dute izan eguraldi eskasagatik baina eskiatzeko aukerarik bai ordea.

■ Akuarela ikastaroa

Egur Arte Tailerrak akuarela margoari buruzko ikastaroa antolatu du datorren hilaren 11tik 29ra bitartean. Ikastaroa arratsaldeko 6etatik 8ak arte izango da Egur-eko egoitzan (Ubitarte plaza). Izena emateko Egur-eko egoitzara hurbildu arratsaldeko 6,30etatik 8ak bitartean.

■ Bederatzi lanpostu mendiak garbitzeko

DEBEMENek ibai ubideetan, mendi publikoetan eta hainbat tokitan garbiketen beharrak direla eta, zortzi oihandar peoi eta arduradun bat kontratatuko ditu.

Esperientzia eskatuko da motoserra eta antzekoak erabiliz eginiko garbiketa lanetan bai eta INEMeko langabezia txartela edukitzea ere. Sei hilabeteko kontratua eskaintzen da. Interesatuak Deba Beheko herrietako Udaletxetan izena eman dezakete. Inskripzio epea 1994ko apirilaren 30ean amaituko da.

■ Zazpikiren zozketa

Zazpiki Irratiak egindako zozketan saritutako zenbakia 324 izan da. Saria 25.000 pezeta musika materialean izango da. Zortedunak hilabeteko epea izango du saria jasotzeko. Horretarako 74 34 74 zenbakira dei dezake 12etatik 1etara bitartean edota arratsaldez.

■ Bertso afaria Kimetz elkartearen

Datorren hilaren 15ean, ostirala, Kimetz elkartearen bertso afaria izango da Sebastian Lizaso eta Millan Telleria bertsolarien partaidetzarekin. Izena emateko lehen bait lehen Jai Alai tabernara edo Kimetz elkartera jo 7etatik 8etara bitartean edo 74 07 37 telefonora deitu. Afariaren zenbatekoa 1.800 pezetakoa izango da eta 80 pertsonarentzako lekua egongo da.

Carlos Gonzalez:

"Trena mediorik ziurrena da"

Izatez irundarra da, Elgoibarren oso gustura aurkitzen den arren. Bere aita estazio munduan ibili zen; egun, bere seme-alabetariko batek ere jarraitu ez izanaren pena du. Dena den, Carlosek berak ogibide

ugari izan ditu 62 urtetan, tren kontuetan denetarik egin behar izan baitu, bileteak saltzetik trenak zuzentzeraino. Honetaz gain, kazetari gisa jardun zuen Bikuñarekin Bergaran igaro zituen urte oparo haietan.

- Zenbat urte egin zenuen estazioko jefe bezala?

- Guztira 29 urtetan aritu izan naiz. Nire aita trenbide kontuetan Iruñen ibili zen lanean. Bizitzaren gorabeherak aginduta, Valladolid-era itzuli ziren, gurasoak bertakoak baitziren. Baina nik Euskal-Herriera itzultzeko irrika nuen, Donostiara traslodoa lortu nuen. Eta hortik aurrera hainbat estazioetan ibili naiz lanean.


- Zein zen zure lana?

- Trenak zuzentzea, paketeak fakturatzea, bileteak ematea eta langileen arduraduna nintzen. Beraz, estazioaren erantzunkizuna nire gain zegoen.

- Zer nolako arazoei egin behar zenion aurre?

- Batez ere, larunbat arratsaldetan Ermua eta Eibartik etortzen diren gazteekin bueltatzerako orduan, baina laguntza eskatu nuen eta hiru pertsona bidali zidaten eta gauzak ondo irten ziren.

- Zer nolako baldintzak bete behar dira



"Gehien gustatu zaidan tren geltokia Bergarakoa da, oroitzapen onak dauzkat eta lagun asko egin nituen."

estazioko jefe izateko?

- Serioa izan behar da, betebeharrak ondo egin, jendearekin atsegina izan eta zure lankideekin harreman onak izan.

- Zein tren estazio duzu gogokoen?

- Geltoki guztietan aurkitu naiz oso gustura. Baina oroitzapen gehien eta asko gustatu zitzaidana Bergarakoa da, lagun onak egin nituelako; batez ere, estazio mun-

duaz gain, beste lanbide batzuetan aritu nintzelako. Besteak beste, RÑEN Bergarako kronika egiten nuen, abuztuan egunkari guztietakoa eta Bikuñaren ordezkokoak SER irratian.

- Zergatik ez zenuen kazetari lanetan jarraitu?

- Langabezia garaia zen, eta korrespontsalak kendu egin behar zituztela entzuten zen orduan.

Horregatik langabezia zegoen Bergarako trenbide gizon bati ematea erabaki nuen korrespontsal lana.

- Trenz bidaiatzen al duzu?

- Bai, nik posible den guztietan trenz bidaiatzen dut, bidaiak luzeak direnean autobusez zein autoz joan izan naiz konbinazioen arabera. Neretzat medio ziurrena da eta linea gehiago egon beharko lirateke.

- Abiadura handiko trenaren alde zaude?

- Bai. Trenarekin zerikusia duen guztia alde nago. Urteak dira hau planifikatu zutela, Bilboko linea Arrasateraino luzatu nahi zuten Gasteiz Lizarrarekin lotzeko.

- Nola daude gaur egungo trenbideak?

- Euskal Trenbideen esku daudenetik hobeto daude. Gainera, hobekuntza handiak datoz, geltokiak berritzen ari dira, elbarrientzako trenak egokitzen ari dira. Elgoibarren bukatze dago.

MAITE IRIONDO

FERI SALTSA

Belarra mozteko garaia laster hasiko da

Udaberria sartua baze-
goen ere, ez zen
eguzki izpirik apenas
somatu pasa den larunbate-
ko ferian. Martxoko azken la-
runbata lainotuta esnatu zen.
Goiz partean jende gutxitxo
urreratu zen Elgoibar aldera,
izan ere, Bergaran Erramu
Sapatuko feria ezaguna ze-
goen eta. Bazkal osteko le-
hen orduetatik aurrera, or-
dea, dexente baserritar bildu
zen.

Beheko argazkian ikusten
dena segadora bat da, belar-
ra moztu eta bildu egiten
duena. Apirila bukaera alde-
ra hasiko dira beheko aldeko
baserrietan belarra mozten,
mendi goian beranduxeago,

giroa ere hotzagoa da eta.
Garai batean, belarra moztu,
lehortu, bildu eta pilatu egi-
ten zen. Guztia, noski, ze-
ruari begira, euririk eginez
gero, atzera ekin behar bai-
tzaio lanari, hau da, berriz
ere moztuz, bilduz eta pila-
tuz. Gaur egun, ostera, ba-
serritar gehienek ziloak di-
tuzte. Hartara, belarra moztu
eta ziloetan sartzten dute,
bertan lehortzen delarik, ino-
lako ikuturik eman gabe, eta
laino grisen amenazurik ja-
san gabe. Azken belar hau
lehorragoa izaten omen da,
beste hura umelagoa, heze-
agoa. Bata zein bestea, gus-
tura baino gusturago jaten
omen dute abereek!



PROTAGONISTA



Evaristo Lete

MAKINA SALTZAILEA

• **Noiztik Elgoibarrera?** Oin dala 23 urtetik. Ferileku ona da Elgoibar. Bai makina, bai gaudu aldetik, Gipuzkoa mailan onentsuena da hemengua.

• **Zer saltzen duzu?** - Neka-zal makinak: baratzeko makinak, moto-atxurak eta segadorak, lurra ereitekuak eta traktorak: 20 zaldikua hasi eta 50-60 bitartekuak ere bai.

• **Lana gehien erraztu duen makina?** - Txikitik hasita, motoserria, danerako balixo dau: egurre mozteko, arbolie botatzeko. Lurra ereiteko makinia, segadoria eta traktorria.

Euki danek dake, txikio edo handiagoa. Lan asko kendu dau makinak, baina baserrira gaur egun ez da lehen bezela dedikatzen ze oin baserriko jendia kalia dabil eta baserrixan tarteko orduak sartzten dia, larunbatak edo. Egiten dena ordu gutxiotan egiten da oin.

• **Salneurri aldetik, zer?** -Motoserrek hogeita mila duro inguru, moto-atxurak 30 mila duro, segadora 70-80 mila duro, segun ze tamainokuak. Hortik gora traktorak, hasi miloi t'erdi eta segi lau miloi arte. Baserritar gehienak bakoitzak berana daka. Baserrira haundixa badake, igual bi-hirun artian bat hartzen dabe eta subentziuen bidez erreztasunak ematen jake.

Ezagutzen al duzu DEBEMEN?



Deba Beheko Mendiko Nekazaritza Elkartea, "DEBEMEN", 1991 urtean sortu zen Deba Beheko baserriarren eskakizunei erantzuna eman nahiean. Elkartea, hamasei partaidez osatua dago. Hauetariko sei,

Deba Beheko herrietako Udaletxeen ordezkariak dira (Deba, Eibar, Elgoibar, Mendaro, Mutriku eta Soraluze) eta beste hamarrek baserriarren elkarte eta sindikatuetaordezkariak.

Ordezkarri hauen bidez aurkezten dira proiektu berriak "DEBEMEN"eko juntan.

1994an proiektuak aurkezteko epäa bukatu da, guztira 75 proiektu inguru aurkeztu direlarik. Proiektu hauen artean era ezberdinetakoak aurki ditzakegu, gehienak azpiegituretan oinarrituak.

Azpiegituren artean, baserrietara bideak zabaltzea edo hauek konpontzea eta baserrietarako ur horniketarako egitea dira gehienbat aurkezten direnak.

Elgoibarko Udalak 1994 urterako 18 proiektu aurkeztu ditu. Hauetatik zazpi baserrietako bideei dagozkie, beste zortzi baserrietan ur horniketarako egiteko eta azkenengo hirurak lokal sozialen konponketa edo berrikuntzarako planak.

Hala ere, azpiegituretan gain bestelako proiektuak ere aztertzen dira. Nekazal Garapenerako Proiektu Integralak, ingurugiroarekin edo, zehatzago esanda, naturgunearekin zerikusia duten proiektuak, nekazal-turismoarekin zerikusia dutenak eta zerbitzuek (lokal sozialak, kirol ekipamenduak, eskola garraioak...) ere tokia dute "DEBEMEN"en planteamenduan.

Elkarte honen eginkizunen artean aipaturikoez gain beste gai batzuk ere badira. Bailara mailan antolatzen diren Nekazal Azokan antolakuntzan parte hartzen du (Debako "Urteberri", Eibarko "San Andres" eta Elgoibarko "Gabonzar"), Isidro Deunaren jaia antolatzen du (DEBEMEN sortu zenetik Deba Beheko baialara mailan Arraten ospatzen da) eta nekazal munduarekin zerikusia duen edozein ospakizunetan laguntza eskaintzen du.

Proiektu guzti hauek aurrera eramateko Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailetik urtero dirulaguntza bat jasotzen da bai eta beste instituzio publikoetatik ere (Eusko Jaurlaritza, Europako Ekonomi Elkartea...).

Asier Albizu
DEBEMENeko gerentea



Juan Loiola, 49 urte
Lasalde (Mendaro)

"Fundatu zanian batzordekoa izan nintzan. Lan ona in da eta ondiok asko dao eitxeko, merezi dau laguntzia. Esaten dutenez, diruan problemia dao hor ere."

Arantxa Mendikute, 27 urte
Upai Txiki (San Lorentzo)

"Ez, ez dot ezagutzen, sekula ez dot ezer entzun horri buruz. Baserriarrentzat laguntasuna bada, hori egotia beti dao ondo."



Patxi Elustondo, 46 urte
Ibartziki (San Roke)

"Zeozer bai. Neretzat lan gehixau in bihar dabe, ondiokan guregana ez da gauza askorik ailegau eta. Igual guk ere gehixao bultzatu bihar dogu."

Pedro Mari Bengoa, 35 urte
Kaskante (San Migel)

"Badakitx nekazariei laguntzeko dala. Guk alanbriak ipintzeko jaso gendun laguntza bat. Baserriarrentzat mehorak eitzen laguntzen dion guztia ondo dao."



Jesus Maria Lizundia, 48 urte
Ziarda Txiki (San Migel)

"Enzutiaz. Gauza gutxi dakitx, konponketak itxen laguntzen dabala. Ur asuntua zala eta, San Migel auzuan hartu gendun dirulaguntza bat, oso ondo etorri zana."

SALLOBENTE AUZOA

Sallobente edo S.Lorentzo. Batera zein bestera deituz berdin-berdin ezagutzen dugun auzoa da. Jatorriz Sallobente, S.Lorentzo santuaren izena da. Paraje hauetan jaiotzen ziren Artazo pilotaria eta Gelatxo soinu-jolea, besteak beste. Baserri gehien dituen alde da, akaso kaletarrok gehien ezagutzen dugun ingurua izanik. Hiru bat kilometroz luzatzen da herritik bertarako bidea, laua, pasiarra lasai edo saltaka pausatu bat emateko aproposa.

Frontoirik ere badago, aste osoa hartuta egoten dena. Tabernarena da; horregatik, erabili nahi duenak zenbateko bat ordaindu be-



San Lorentzo auzoaren aurreko alde, bideetik ikusita.

har du orduko.

Bolatokia, mahaiak eta errekatxo bat ere bai, arrantzorako ezin hobea.

Abuztuaren 10ean ospatzen dituzte jaiak, herritarren artean demaseko arrakasta dutenak. Herri kirolak, berbenak, umeen eguna, gazteena... Denetarik izaten da auzo eta kaletarrentzat.

Ermita dotore bat ere altxatzen da, auzoaren erdi erdian. Jakina da, gainera, bertako hormetan, Erdi Aroko margoak aurkitu zituztela, Gipuzkoako zaharrenak. Gaur egun Artelekuko en esku dago aipatu pinturen ardura, Andorrako Errestaurazio Taldearen zuzendaritzapean.

JAKITEKOAK

■ **BASERRIAK:** Agarre, Antxola, Antxola erdikoa, Aozar, Armaitza, Armaitza txiki, Arostegi, Artazo, Azaola, Azkarate, Basueta, Ermubekoa, Etxeberri Goen, Etxeberrizabal, Garagartza Bekoa, Garagartza Errota, Garagartza Goikoa, Gibraltar, Gelasoro, Gelasoro Errota, Gorostizabal, Ibarrenea, Ibarre Torre, Iriarte Berri, Iriarte Zar, Juaristi Haundi, Juaristi Txiki, Kortaberritxo, Kurutzeta, Marigorta, Mokoroa, Musillo, Olazabal, Orraindi, Otzurteaga, Parapan, S.Lorenzo, Txillarre, Untzon, Upai, Upai Txiki, Upai Goiti, Upaitza Goikoa, Upaitza Bekoa, Urkiri, Urrategi, Zabaleta, Zabaleta Bekoa, Zulueta Bekoa, Zulueta Goikoa.

■ **JAIK:** abuztuak 10

AUZOETAKO ALKATEEKIN BERBETAN

Jose Antonio Garitagoitia :

"Kolunpixuak eta komunak ipini nahi douz"

Herriko jende asko juten da bertara eta biharrezkuak dia komun batzuk.

- **Frontoiarekin ere badi-tuzue arazoak, ez?**

- Oso deskontento gaudede. S.Lorentzori tokatzen jako frontoia eukitzia, hor pelotan afan handixa egon da beti: Artazo, Txurruka, Arriola, Alonso anaiak.. Frontoia taberniana da, eta jendiak pagatu ein bihar dau jokatzeke. Gainera oso egoera txarrian dao. Eros-tia nahi dogu baina ez dau saltzia nahi. Gure ilusiua izango zan S.Migelen daken moduko bat eukitzia.

- **Jaiek badute famarik.**

- Bildurgarrixa izaten da biltzen dan jendetza guztia! Soziedadia zabalik egoten

da tabernia moduan eta behian ere beste lokaltxo bat zabaltzen dogu, pollerixa moduan gau guztia zabalik egoten dana. Frontoian berbenia egoten da. Lan haundixa eitxen dou baina gustora, ze gero jendiak gozau itxen dau.

- **Eta "Bakilao bazkari-a"ren ohitura hori?**

- Jaixan haseran izaten da. Lehen eliza ganbaran ematen zan bakilaua, taberniak serbiduta. Gero Sozidadiak hartu zaban arduria. S.Lorentzoko aitonamonei, auzoko alkate, udaletxekueri, monagillo eta apaizari de balde ematen jakue. Bakilaua saltsa berdian, tomatiakin, gaztaia eta menbrillua izaten diaz.

- **Arrantzorako aukerarik ere badu S.Lorentzok.**

- Arrantzarako oso leku ona da. Bastante kontrola-ta dauala esan leike, tailarrak eta ere bajau in dia produkzio aldetikan eta bastante garbixa dau. Baina arrantzuan ibiltzen diazenak esan die arrainak badakela holako gasolina gustua edo.

- **Ezer berririk elizako margoeri buruz?**

Iaz zian bukatze-kuak. Baina ez dakit sekula amaitxuko daben! Oin arte oso gitxi in dabe. Ostian txukun eta politxa dao elizia baina falta jaku horixe.

Ia aurtengo udan bukatzen deben, nahi genduke!



- **Izan duzuen arazorik handiena?**

- Bide asuntua. Uhol-diak tokatu zianian ni neuan konzejal Udaletxian eta bastante zuzendu genduzen baina ondiok ere beste bi baserri altuenetakuak gelditzen jakuz bidian hormigoia bota be.

- **Hurrengo pausua?**

- Nahiko gendun umien-dako kolunpixuak eta komun publiko batzuk jartzia.

Baserria, mendia eta natura: bizitzeko arrazoiak

Kalean jaio, hazi eta bizi izan da duela 5 urte arte. 1989 inguruan, S.Migel auzoan kokatzen den Alzate Etxetxo baserria erosi zuen, erortzekotan zegoena. Bere eskuz eta

jendearen laguntzaz konpontzen ari da. Jesus Mugerzak banketxe batean egiten du lan hiruak arte. Gero, baserrirantz jotzen du. Bertan bizi da Elena, Maite eta Myriamekin.

- Nolatan kaletik baserrira ?


- Kalian hutsik sentitzen nintzan, ez zian bizi-pozik ematen. Mendira igo eta pilak erabat kargatuta etortzen nintzen. Naturara hurbiltzea nahi naban. Filosofia berri honekin oin dala 15 urte hasi nintzan. Ez nintzan ondo sentitzen, zerbait ezberdina topatzen hasten zara, irakurtzen... eta guzti hori praktikan jartzen. Funtzionatzen dabala ikusten dozunian aurrera jarraitzen dozu eta zure bizitzeko era bihurtzen da.

- Bi ume dituzue, ez al zen arazo bat izan?

- Txikiak diren bitartean ez da arazorik egoten. Gero, partikularrak eta holakuekin, hasi bihar zera gora eta behera. Dana dala auzo honetan nahiko ondo antolatzen dira, errobera antzeko bat egiten dabe eta astero baserri bat arduratzten da seme-alabak herrira jeistiaz. Eskolan ere autobusa jartzen diete eta bazkaldu ere bertan egin dezakete. S.Migelen bertan frontoia egin da, badake jolasteko lekua.

- Zer eman dizu baserriak?

- Kaleko lana erabat itxia da, ordenadorea begi aurre-



an... baina badakizu amaitzen darian mendirantz igoko zerala, beste bista batzuk izango dituzula, zabalagoak, eta beteko zaituztenak. Banketxeko lana bizitzeko beharrezkoa zait. Baserria, mendia eta natura, nire bizitzeko arrazoiak dira.

- Eta ez al duzu kaleko eze- rren faltarik nabaritzen?

- Ez. Kalian itxen dot lan eta bukatzian desiatzen egoten naiz hona etortzeko. Neri goizian esnatu, leihoa zabaldu eta behera bajatu bihar naizela pentsatzia eitxen jata gogorra.

- Aukeran, biziko al zinake baserriko lanetik?

- Baserritik bizitzia utopia bat da. Ez baduzu esplotazio bat jartzen, inbernaderoak, ganadu asko edo horrelako zerbait, oso zaila da. Gaur egun baserri gehienak bizi dira kaleko lanetik. Niretzat bakarrik izango balitz beharbada planteatuko nuke, baina familia bat ere tartean dago eta guzti hori aurrera ateratzeko...

- Ze animalia eta landare dituzu?

- 20 ardi eta zaldi bat, "Txispa". Denborarekin beste oilo batzuk edo... Mementuz etxea konpontzearekin nahikoa lan. Frutalak ere sartuko ditut baina aurrerago. Orain

porruak, tomatiak, kipulak eta horrelakuak ditzugu, guretzat nahikuak. Eta 700 bat arbola ere landatu nituen: pagoak, astigarrak...

- Zein erreakzio izan zuen jendeak erabaki honen aurrean?

- Lagunak ondo, nire tankerako munduan mugitzen zian eta gehixenak hori nahi zeber lortzia. Gurasuena desberdina izan zan: ni mendira jende guztia herrira bajatzen darian! Oin diferentia da. Aitxari honek bizixa eman dio.

- Baserriak 200 urte inguru ditu, ez?

- Bai. "Hecho polvo" zauan, urtien buruan jun gera konpontzen. Hemendik hartuz, handik jasoz... Poliki-poliki. Ez da hain garestia izan ze guk egin dou guztia.

- Kaletarra izanik, erraz ikasi al dituzu baserriko lanak?

- Ondiok ez dakitx. Ikusten badozu albokua porruak landatzen, ba zuk ere hori eitxen dozu. Naturak ere erakusten dau garai bakoitzian zer sartu. Ni baserriar berria naiz, liburuetan ikasi dot zelan in bihar diazen gauzak.

IDARRAK

■ SORRERA: Hasera batean garau lehorrak kontsumitzen ziren. XVI. mende aldera hasi ziren garau samurak kontsumorako erabiltzen.

■ FAMILIA: *Leguminosae*

■ IZEN ZIENTIFIKOA: *Pisum sativum*

■ KLIMA: Epel eta hezeak.

■ ZOLUA: Arina eta freskua baina ongi drainatua. Kaliza gehiegirik gabe-

ko lurra behar du izan eta PHari dagokionez azidez maila oso altua ez izatea komeni da.

■ EREINTZA: Urritik urtarrila bitartera.

■ LABORANTZA ELKARKIDEAK: Artoa, patatak, azenarioak, arbia, pepinoa...



Gloria Aranguren Errekadista



● Noiz hasi zinen lan honetan?

▶ Hasera batean nere ahizpa Dorita hasi zen, duela 40 bat urte edo. Urte batzuk pasata ni ere hasi nintzen eta gero bion gizonak kamioiak, "Transportes Beraseta" bezala.

● Nola hasi zinen lan honetan?

▶ Manuela errekadistia jubilatut zenean Doritari eskaini zion lana eta gero bion artean jarraitu genuen.

● Zergatik Elgoibar-Donostia?

▶ Alde batetik Manuelaren bidea jarraitzeko eta gainera orduan Donostia zelako zentra.

● Zein motako "errekauak" egiten dituzue?

▶ Instituzioetako papeleoa, abokatuena, asesoriaria, farmazietatik, errota dendetatik... gero kamioiarekin paketeak, danetik.

● Hasi zinenetik gaur egunera, zertan aldatu da lana?

▶ Haseran erropak erostera, ofizinen jiroak, haziendako pagoak, Seguritate Sozialekoak, desplazamenduak... dena Donostian egin behar zen; gaur dana hurbilago eta erretzago dago.

● Aurrerapenak ez al doaz lanbide honen aurka?

▶ Bai, eta asko gainera.

● Goizean jaiki eta zer gustatuko litzaizuke entzutea irratian?

▶ Lana sartu dala eta paroa jeitsi.

● Zein da gustukoena duzun abeslaria?

▶ Euskal abesti zaharrak ditut gustukoena; ez izen konkretu bat.

● Aste Santuan elizkizunak jarraitzen al dituzu?

▶ Bai, beti joan izan naizen bezala.

● Honelako tradizioak mantentzearen aldekoa al zara?

▶ Bai, nahiz eta orain modan ez egon, ni bai.

● Denbora librean zer duzu gustukoena?

▶ Gutxi daukat baina, baserrira joatea, gantxilloa egitea...

● Nora joango zinateke hilabete bat pasatzera?

▶ Toki asko nahi nuke ikusi, baina zerbait trankila. Neri Donostia asko gustatzen zait.

● Udaberriaren etorrera igarri al duzu?

▶ Ingurua zela argitxu dauan, poztasuna, bai igarri dot.

BELEN ARRIZABALAGA

ASTE SANTUA, ERLIJIOA ALA OPORRAK?

DOINUA:

Aizak hi mutil mainontzi


Gure helduen oporra
otoi kontuan gogorra
gazteok berriz ordaindu behar
hobby-aren zorra
batzuek mendi tontorra
besteek kriston mozkorra
gehiegikeri guztiek dute
hondamen bizkorra. (BIS)

Ireki bertsoan beda
hitzak egiten du hega
opor luzeak ditugu eta
kontuak atera,
beraz erditik atzera
gure hobby-aren aukera
erlijioa gogoan hartu
erditik aurrera. (BIS)



JOSU GUENETXEA

B
E
R
R
I
T
S
O
T
A
M



Orbea
Kafetegia

San Frantzisko 6, Tel: 74 31 17

*Eskulanean
saiatzeko gara*

*Pastelak
Tartak
Izozkiak
Bonboiak*

GOZOTEGIA

San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45



Industrialdearen kapitalak gora egin du

Gehikuntza 50 miloikoa izango da. Elgoibarko Udaletxeari dirutza horren %24,50a dagokio, guztira 12 bat miloi emango dituelarik. Diputazioaren esku beste horrenbeste geratzen da, Eusko Jaurlaritzako SPRIk (Sociedad de Promocion Industrial) gainontzeko %51a jarritz. Guztira 320 miloiko kapitala izango du aipatu Industrialdeak.



1994 urteko eroldaren datu berriak

1994ko urtarrilaren leian Elgoibarko Udaletxean 11.359 bizilagun zeuden erregistratuak; iazko kopurua 11.548koa zen. Gaur egun 5.716 gizonezko daude guztira Elgoibarren, emakumezkoak 5.643 izanik. 1993tik 1994a bitartean 56 jaiotza izan dira herrian; heriotzak, berriz, 90. Elgoibartik 26 pertsonak aldegin dute beste herri batera bizitzera, hona 100 etorri direlarik, horietatik 6 atzerritik.



Alkatea Elgoibarko ordezkari Gipuzkoako Kutxan

Martxoaren 29an egindako aparteko bilkuran, Jose Ignacio Elkoro-Iribe Alkatea izendatu zuten Gipuzkoa eta Donostia Kutxaren Bilkura Orokorrerako Elgoibarko Udalaren Ordezkarri Orokorra. Udalbatzarra osatzen duten alderdien gehiengoaren onarpena izan zuen, aldeko hamalau botorekin (EAJ/PNV, PSOE eta HB) eta bi abstentziorekin (EA).

Umeentzako ludoteka Kultur Etxeko ganbaran

“94ko udaberrirako itxaroten zeundena prestatu dugu”. Esaldi honen azpian, Udaleko Kultura Zerbitzuak hainbat ekintza antolatu ditu, guztiak haur eta gaztetxoei zuzenduak. Datorren apirilaren 23an hasita, jolasak, diapositibak eta irteerak izango dira, aukeran. Eta horien artean izango da berrikuntzarik ere: ludoteka.

Ekintza guzti hauek, ekainaren 25a arte luzatuko dira. OHOkoumeei zuzenduak daude, 6 eta 11 urte bitartean daudenentzat. Eguna larunbata eta ordua, 9'30etatik 13'30etara. Zenbait irteera asteburu osokoak izango dira, hala nola, Xoxotera eta Zuazara. Prezioa 7.000 ptakoa da, asteburuko irtee-

rak ere barne; eta 35 lagunentzat bakarrik egongo da lekua.

Ludoteka apirilaren 24an hasiko da, printzipioz igandero, arratsaldeko 3'30etatik 7'30etara. Kasu honetan 6 urtetik 13 urterako guztiek har dezakete parte. Bertan, pin-pong-a, futbolina, partxisa eta antzekoak egongo dira, besteak beste.

Ludoteka Kultur Etxeko ganbaran izango da. Prezioa, 200 pta hileko.

Ludotekan edo beste ekintzetan interesa duenak apirilaren 12tik 22a bitartean irekita izango du izena emateko epea, Kultur Etxean.



UDALETXEKO LANGILEAK EZAGUTZEN



▲ **IZENA:** Kati Pons

▲ **ADINA:** 36 urte.

▲ **LANPOSTUA:**

Drogomenpeketasunaren prebentziarako teknikaria.

▲ **FUNTZIOA:** Prebentzioaz gain drogekin zerikusia duen guztiaren gestioa, dirulaguntzak, tratamenduak...

▲ **NOIZTIK LANPOSTUAN:** 1990 urtetik.


▲ **LANAREN ALDE ONA:** Jendea arazoei etortzen da hona eta horiek konpondu ahal izateak poztasun handia sortzen du.

▲ **ALDE TXARRA:** Gai gatazkatsua da, jende asko biltzen duena bere inguruan, baina bakoitzak bere ideia propioak ditu, eta horiek defendatzen ditu. Honelako gaietan beharrezkoa da guztien arteko lana egitea, eta batzuetan ez da batere erraza izaten.

Villamayor de Markina-Elgoibar

- Gaurko Elgoibar, aintzina Markina Yusokoa deritzaion bailarari zegokiona, Villamayor de Markina deiturarekin sortu zen.
- 1346ko abenduaren 20an, Alfonso XI erregeak Olasoko monastegiko lur eremuari, hiri harresitu bat eraikitzeko baimena eman zien ordura arte sakabanatuta bizi ziren aitonen seme eta nekazariei.
- XV. mendearen erdi aldean hasi ziren Elgoibar izena erabiltzen, dokumentuetan irakur daitezenez.
- Garai zail haietan segurtasuna eta defentsa bilatzen ziren eta dudarik ez dago Elgoibar ere gotorleku (fortaleza) itxura emanaz eraiki zela.
- Mendebaldetik Deba ibaia zen defentsa naturala. Ekialde, ipar eta hegoaldeko harresiz inguratua zegoen eta Ubitarte, Ermuaren eta Errebaleko ateen bidez isten zen.
- Oinplanoak lauki luze forma zuen, Feria (gaurko Errosario) eta Ermuaren (S.Bartolome) kaleek ibaiaren trazaketa paraleloa jarraitzen zutelarik. Kale bietako atak irudi banaz apainduta zeuden, S.Anton eta Sortzez Garbiaren Andra Maria.
- Kalegoengo eta Barrengo plazak nabarmentzen ziren, gaur egun Foruen eta Nafarroako enparantzak direnak. Kalegoenen Olasoko dorretxea altxatzen zen eta Barrengo plazan Altzolakoa.
- XVI. mendean bazegoen San Lazaro ospitala eta mende horretan eraiki ziren San Frantzisko eta Santa Klarako komentuak.
- XVIII. mendean Olasoko dorretxea hirigune oso esanguratsua bilakatu zen, eta Kalegoengon, aurretik zeuden hainbat eraikuntza bota eta berriak altxatu zituzten, gaur egun ezagutzen ditugunak, hain zuzen ere.
- XVIII. mendearen azken laurdenean Bilbo-Donostia eta Bergarako errepideak eraiki ziren. Geroago Markinarakoa eta Azkoitirakoa. Hartara, gure herria ondo komunikatua gelditu zen inguruko herri eta bailarekin.
- XX. haseran trenbideak garapen industrialia bultzatu zuten, eraldakuntza nabarmenak sortuz: auzoak, industria berriak, zerbitzuak eta beste hainbat berrikuntza ekarri zituen Elgoibarrera ere.

PELLO ARRIETA



Jose Ansola

Txistularia (1911-1980)



ARAGO

- Elgoibarren jaio zen 1911ko martxoak 11an. Laureano Ansolaren semea. Gazte zela Markinara joan ziren bizitzera.
- 10 urterekin jo zuen lehen aldiz herrian.
- Lau anaiek txistulari talde ospetsua osatu eta diskarik ere grabatu zuten. Ansolatarrak izan ziren lehen aldiz Bach musikoaren lana txistuz jo zutenak, "Toccatà eta Fuga, Re menorrean".
- Bandako zuzendaria eta bigarren txistua zen.
- Tailerreko istripu baten ondorioz ezker eskua moztu behar izan zioten. Halere, esku artifizial batekin txistua jotzen jarraitu zuen.
- Markinako Musika bandako zuzendaria ere izan zen.
- 1980ko uztailak 25ean jo zuen azken aldiz. Juanito Gurrutxaga txistulariari egin zitzaion omenaldian parte hartu nahi izan zuen, "Uso txikia" piezarekin.
- 1980ko azaroaren 27an hil zen; 69 urte zituen.

XABIER
ILEAPAINDEGIA

Eskatu eguna eta ordua

San Bartolome 13, Tel. 74 19 97

LIZZY
Errosario, 25 - ☎ 74 23 02

GAZTEENTZAKO
MODA

**BOUTIQUE
DEL PAN**

Enpanada
Baserriko ogia

B. Ecenarro, 1 ☎ 74 33 92

MOTZAK

Aurtengo programazioa aurkeztu du Morkaikok

Morkaiko Mendizale Elkarteak aurtengo urterako egitarauaren aurkezpena eta iazko urtearen balorazioa ezagutzera eman du. 1993. urtean antolatutako ekitaldien artetik Euskadiko Eskalada Txapelketa aipatu zuten Morkaikoko zuzendaritzako kideek. Aurtengorako datarik ezarri ez badute ere, "berriro antolatzeko asmoa" agertu zuten; "beharbada Trinidad jaien inguruan". Aurtengo programazioaren barruan ekintzarik gehienak udaberri eta uda aldera burutuko dira, maiatzean, ekainean eta urrian astebukaera osoko irteerak izango direlarik. Aurrekontua 4 milioi ingurukoa da aurtengoa, baina urtea aurrera joan ahala, aurrekontua handitzen joango dela adierazi zuten Morkaikoko arduradunek. Orain arteko balorazioa "guztiz positiboa" izan dela azaldu zuten, "jendearen aldetik jarrera oso ona izan da eta hemen bertan, Morkaikoren egoitzan, joan-etorri handia igarri da urtean zehar".

Mendi irteera

Datorren hilaren 24rako mendi irteera antolatu du Morkaikok. Gatzagatik Urkiolara travesia izango da eta prezioa, 1000 pezetakoa bazkide ez direnentzat eta 800 pezeta bazkide direnentzat. Irteera lekua Plaza handia izango da eta ordua goizeko 8,30ak.



Jose Juan Barrenetxea:

Mendiko bizikleta trabesiaren antolatzailea

■ **Noiz izango da mendiko bizikleta travesia?** - Hilaren 10ean, goizeko 10etan. Irteera Mintxetako aparkalekuetan izango da.

■ **Zertan datza lasterketa?**

- Mendien zihar izango da gehixena. Mintxetan hasi, Sallobente, Azkarate, San Antolin, gero Lizundia alde- eta handik bi bide: bat Urnobitxara eta bestia, Madarixaraino. Madarixatik beste bi bide daoz, bat Urnobitxara eta bestia zuzenian Azkaratera. Gero Azkaraten elkartzen dira bide danak. Azkenian eskonbrerara jeitsi eta bukaera Mintxetan izango da. Bide luzienak 37 kilometro dakaz, erdikuak 34 eta motzenak 31.


■ **Zergatik zirkuitu ezberdinak?**

- Batzuk gutxi ibilitxakuak dia eta beste batzuk igual gehixo ibilitxakuak. Danontzako probia danez bakoitzak aukera dezake ondoen etortzen jakona.

■ **Izena emateko nora jo behar da?** - Mintxetan bertan egin leike eta azken eguna lasterketa eguna bera izango da. Haseran bat ere ez kobratzia pentsau gendun baina diruz ez gabizen ondo Udaletxiakin 300 pezeta kobrauko gendula geratu ginan.

■ **Non gehiago egin dira travesiak?**

- Eibarren urtero, Plaentxin hasi dira, Azkoitxian ere bai, bastante lekutan.



■ **Zeintzu zabilzate antolakuntzan?** - Ni neu eta eskolako beste bat. Gero jende gehixaok ere hau dana eitxen laguntzen digu. Kirol Zerbitzuko Ramon Mujikak ere lagundu digu.

■ **Zer dela eta bururatu zaizue horrelako frogara bat antolatzeko?**

- Mountain bike-agatik ez da ezer ere eitxen eta zeozer itxiagatik. Bastante lan ematen du, febreruan hasitxa gaude.

■ **Datorren urtean berriro?**

- Bai. Travesia amaitzen danerako kuaderno bat ipiniko dogu, jendiari zer gustau jakon eta zer ez jartzeko. Hurrengo urtian hori dana mejortzia espero dogu.

■ **Zu txirrindularia al zara?**

- Bai, mendiko bizikletan. Suertia euki ezkerio ia datorren urtian ekipo batian sartzen naizen.

■ **Orain arte nola ikusi duzu zeure burua?**

- Momentuz gaizki ez. Plaentxiko mendiko Duatlhoian erdi inguruan geratu nintzan. Duathloia esperientzia politxa izan da eta aurtengoa ere juteko asmua daukat.

• **Adina: 17**

• **Zaletasunak: Mendiko bizikletaz gain, motorra.**

• **Oporrak non igaro dituzu? Lesionatua egon naizenez, Elgoibarren.**

• **Jatekorik gogokoena? Spagettixak.**

UDA BERRI
ELGOIBAR

oizmendi
Tel: 74 00 16
TABERNA

CHINA TOWN
Txinatar jatetxea
Udaberriaren prezio merkeagoak eta gainera opari txinoak
far-Kale, 3. 70 21 55 EIBAR

INTERIORES
- SUKALDEAK ETA BAINU ALTZARIAK
- ATE TOLESGARRIAK
- BARRUKO ARMAIRUAK
- DEKORAZIO GAIK
Tel: 74 40 55 - 74 40 19.
Errosario 15 Behea.

Karakatetik Elgoibarreraino parapentez

Eguraldi ona eta haize ez oso gogorra dagoenean Karakate puntatik parapentea bizkarrean, jauzi egiten du Javi Ferreño elgoibartarrak. Ikaragarria da San Roke ermita inguruko zelaian parapentearekin lurra hartzen duenean. Baina Javik berak esan digunez, are ikusgarriagoa da hor goian nonbait, hegan ibiltzea.

Javi Ferreño duela bost bat urte hasi zen parapentearen munduan baina aparatua erosi arte ez da hegaldiak egiten hasi. Eguraldiak eta haizeak lagatzen duenean, Javi kotxez urreratzen da Karakateraino, gero han, salto egiteko. "Bertigorik ez, baina beldurra bai, beldurra da sentitzen dena hu-tsera jauzi egiten duzunean".

Oinarrizkoena, haizearen abiadura kontrolatzea da eta norabidea ere bai. "Aireratzea eta lur-hartzea beti haizea aurrean duzula egin behar da" dio Javik. "Haizeak ere ez du oso gogorra izan behar, bestela atzerantz botako lizuke". Haizearen abiadurarik aproposena 12-18 kilometro orduko bitartekoa da. Abiadura horrekin airean egon daiteke ia alturarik galdu gabe.

Karakatetik herrirainoko hegal-



■ ■ Lurra hartzeko unea arriskutsuenetarikoa izaten omen da.

dia hamar minututan burutzen du. "Igotzen ordubete ematen baduzu ere, jeisten bost minutu. Dena dela, mendi magalean bueltaka orduak egon zaitezke haizearen rotorizazioari esker". Norabideari dagokionean, haizeak iparrekoa edo ipar-mendebaldekoa izan behar du. Lurra hartzean kontu handia izaten du San Roke guztia zeharkatzen duten kable multzoarekin. Arriskua egon badago baina kableak altura handiz pasatzen omen ditu. Arriskuaz hitz egitean, unerik larriena aireratzeke zein lur hartzeko uneak direla dio Ferreñok. "Arriskua egon badago, kirol guztiak dira arriskutsuak, agian parapentea alturagatik zertxo-

bait arriskutsuagoa da, baina ezagutza edukitzea funtsezkoa da".

Kirolzalea

Javi Ferreñok 32 urte dauzka. "Izarraitz" izeneko taldeko kide da eta Plaentxiko parapentezale batzuek gomendatu zioten Karakatetik salto egitea. Kirolzalea da oso, parapentiaz gain urazpiko kirolak atsegin ditu. Hori bai, bertigoa lehen jauzia egitean desagertzen bada ere, puenting-a egitera ez dela ausartzen aitortu digu, "hegan egitean beldurra da nagusi, agian errepideko "rasante" aldaketa batean sentitzen duzunaren antzekoa. Lurra hartzean satisfazioa sentitzen dut".

A G E N D A

FUTBOLA Mintxetan Larunbata 9

- 10,00: Urki - Gazteak (2. errejionala)
- 12,00: Eibar - Amara Berri (1. Jubenilak)
- 16,00: C. D. Elgoibar - Mundaiz (Jubenilak)
- 17,45: Urki - Añorga (1. Jubenilak)

Igandea 10

- 10,00: S. D. Eibar Urko- Osasuna (Ohorezko Dibisioa)
- 12,00: C. D. Elgoibar - Real Union (Infantilak)

ESKUBALOIA Kiroldegian Larunbata 9

- 16,00: Elgoibar - Urola (Jubenilak)
- 17,30: Elgoibar - Bergara (Kadeteak)

Igandea 10

- 12,00: Elgoibar - Usurbil (Neskak)

E M A I T Z A K

ESKUBALOIA

- Elgoibar 24 - Bidebieta 23 (Kadeteak)
- Elgoibar - Tolosa 19 (Jubenilak)

FUTBOLA

- Haundi 0 - Arenas 0
- Elgoibar 3 - Alde Zaharra 1 (Neskak)
- Elgoibar 6 - S.D. Eibar 2 (Kadeteak)
- Dunboa 2 - Elgoibar 2 (2. errejionala)
- Sporting 5 - Elgoibar 0 (Jubenilak)

Mugerza Krosa dataz alda liteke

Urtarrilero ospatzen den Mugerza Krosa, dataz alda liteke. Atletismo-ko erakunde gorena den IAAF-ren egutegiaren arabera Zornotzari nazioarteko lasterketa bat egokitu zaio urtarrilaren 15ean, Mugerza krosa ospatuko litzatekeen egun berean. Arazoa da Espainiako Atletismo Federazioak debekatuta duela egun berean lehen mailako bi lasterketa ospatzea. Horregatik Mugerza krosaren antolatzaileek lasterketa egunez aldatzera edota frogatzea behar duzute. Proposatutako egunak, urtarrilaren 8a, eta, otsailaren 5a lirateke. Urtarri-

laren 8an Ulija Gimnastikak antolatutako lasterketa burutzen da eta Ego-Tokiko enpresaren laguntzarekin, Mugerza krosak ez luke komunikabideen oihartzun nahikoa izango. Otsailaren 5ean Europako klubetako txapelketa ospatuko da eta Espainiako zein Portugalgo

korrikalari onenek ez lukete Elgoibarrera etorzerik izango. Bilera bat egin ondoren eta aukeratu guztiak eztabaidatu ondoren, Ego-Tokiko arduradunek, asteazken goizean



■ ■ Lasterketa urtarrilaren 15ean ospatu nahiko luke Ego-Tokik.

fax bat bidali zioten Espainiar Federazioari Zornotzako lasterketa otsailaren 5ean ospatzeko eskatuz eta Elgoibarko urtarrilaren 15ean. Ego-Tokikoek eskakizun hau

IAAF-ari helarazi diezaion eskatu dio Espainiar Federazioari. Momentuz, IAAF-aren erantzunaren zain geratu dira Ego-Tokiko arduradunak.

KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK



Gipuzkoako Federazioak antolatuta, zenbait igeriketa lasterketa burutu ziren joan den hilaren azkenean Olaizaga Kiroldagiko igerilekuan. Eibartik 14, Ondarrutik 13 eta Elgoibartik igerilari bakarrik izan ziren. Guztiak 9-10 urte bitarteko haurrak ziren eta 3 lasterketa ezberdin burutu zituzten. Lehena atzerazka eta krol erako lasterketa, bigarrena paipoekin 25 metroko errelebuak eta azkenik, binaka paipoekin 25 metroko errelebuak. Aipatu, herriko ikastetxeetako haurrik eza, izan ere, ordezkari bakarrik Enara Gorostiza izan zen. Gipuzkoako Federazioak ia larunbatero antolatzen ditu jolas antzeko lasterketa hauek.



Salvador Celaya
ITURGINTZA
BILTEGI ETA BAINUGINTZA
BEROGAILU ELEKTRIKO ETA GASDUNAK

Errosario 22. Tel: 74 04 94



OIERKI IGONGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segiduan
konponduko dizugu igongailua

☎ (943) 11 35 15 • ☎ ABERIAK (943) 11 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) • 20600 EIBAR

Pello Ezkurraren lanak Kultur Etxean ikusgai

Pello Ezkurra elgoi-bartarrak hogeita piku margo izango ditu erakusgai Kultur Etxean datorren hilaren 24ra arte. Hiru astetan zehar, Pellok margotutako kolore biziko koadroak ikusteko aukera izango dugu. Izan ere, kolore biziak erabiltzen ditu, konposizio erakargarri bezain bistosoak sortzen dituelarik.

Pellok esan digunez, lehen frustrazioa Donostiako Altxerri Galeriarra bere lanak eraman zituenean izan zuen. Dena den, ez zuen etsi eta pintatzen jarraitu zuen. Erakusketak egin izan ditu baina beti aire librean. "Errebeldia kontu bat da, lehen dena apurto nahi genuen eta kale-

an norberaren lana erakutsi. Baina boterearekiko errebeldia hori zertxobait desagertu dela esango nuke lehen aldiz leku itxi batean erakusketa bat egin behar baitut".

Egun apur bat lagata dauka pintura. Denboraz estu dabil, lana eta ikasketak direla eta. Horregatik laga dio pintatzeari. Betidanik izan du pinturarako zaletasuna. "Autoestimaten ninduen gauza bakarra zen, ondo marrazten nuela esaten zidaten. Hortik dator nire zaletasuna". Egur arte lantegian aritu zen teknika piska bat lantzen, baina bere kasa margotzea nahiago du. "Ez naiz teknika zalea, koloreekin esperimentatzea gustatzen zait".



2.000. BAZKIDEA

MORKAIKO M.E.

eta **ASTIGARRAGA** Kirolak, **IRIONDO** Kitrolak, **MUXI** Kirolak, **UZURI** optika eta **IKUS** optikaren arteko akordioa.

Bazkideak %10eko DESKONTUA mendirako materialetan

Egin zaitez bazkide eta ekarri azpiko txartela MORKAIKOran. Errosario 17. ☎ 74 02 97



IZEN -ABIZENAK

ZUZENBIDEA **TEL.**

JAIOTEGUNA

KUOTA: Haurra 500 pta.
 Nagusia 1.000 pta

BEHARREZKOAI!

BANKUA **KONTU ZENBAKIA**

Artze Elgoibarren

“Ez daukat etxean telebistarik munstro bat iruditzen baitzait”

Duela hilabete inguru adierazi genizuen bezela, Artze olerkari ospetsuaren emanaldia ikusteko eta entzuteko aukera izan genuen. Amaitzean, berarekin hizketaldi bat izan genuen. Ondorengo hau elkarrizketaren zati bat da:

- Nolatan bururatu zitzaizun horrelako espektakulu bat egitea?

- Nik olerkiak idazten ditut eta liburuetan bakarrik ager ez daitezzen, hauei bizia ematea iruditu zitzaidan.

- Euskara ez den beste hizkuntza batean idatzi al duzu sekula olerkirik?

- Bai. Euskaraz baino lehenago ingelesez idatzi nituen hainbat olerki baina espainolez edo frantsesez inoiz ere ez.

- Euskaldunon artean uste ustekabeak dira nagusi?

- Bai bata eta bai besteak. Hori garai eta lekuaren arabera dago.

- Mendi ra igotzean nora begiratzeko duzu, gora ala behera?

- Ez batera eta ez bestera. Men-

“Zortzi liburu irakurtzen ari naiz batera. Gehienak metafisikari buruzkoak.”

dizale batek erakutsi zidan lez, pausu mantso bat hartu eta poliki-poliki aurrean dudana ikusiz igo ohi naiz.

- Liburu bat ala telebista?

- Liburu bat, dudarik gabe. Ez daukat etxean telebistarik, munstro bat iruditzen baitzait.

- Zer falta zaio bertsolariari olerkari izateko?

- Beno, nik uste dut bertsolari ona izanez gero nahikoa olerkari dela.

- Zure olerkietan orijinaltasuna aurkitzen al duzu?


- Ez nabil orijinaltasunaren bila. Nire esperientziaz baliatzen naiz errealitatea nire erara islada-tzeko.

- Ilunari beldurrik?

- Ilun fisikoari ez, baina bai espiritualari.

- Irakurri duzun azken liburua?

- Zortzi liburu irakurtzen ari naiz batera. Gehienak metafisikako-



■ ■ Artzek bere lehen olerkiak ingelesez idatzi zituen.

ak dira, bi ezik. Azken hauetako bat Juan Mari Irigoienek azkena, “Consumatum est” eta bestea, Etxelarrerena.

- Eta azkenik, neguko eguzkia ala udako ilargia?

- Biak dira beharrezkoak eta ez dago bakar bat aukeratzetik.

BBB 3. mailako ikasleak



Mandiola S.L. Egurrak

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42



ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Franzisko 49-1 tel. 74 11 89

Etxebizitzak

ETXE BAT DAUKAT ALOKATZEKO. Altzariak dauzka. Pedro Migel Urruzuno Kalean.
☎ 74 08 09 (3,30-7,30)

PISU BAT DAUKAT ALOKATZEKO San Roken.
☎ 74 00 37

BUHARDILA BAT ALOKATZEA nahi dut. Berdin zait Elgoibar, Mendaro ala Alzolan izan.
☎ 19 29 31

PISU BAT SALGAI dut San Frantzisko kalean 37- 4. pisua.
☎ 74 34 03 - 74 09 56

ETXE BAT EROSIko nuke DEBAN. Deitu eguerdian 13,30-14,30. Gauzez 19,30etatik aurrera.
☎ 74 04 59

Lana

KLASE PARTIKULARRAK ematen ditut euskeraz eta erderaz. OHO edo BUPen.
☎ 74 28 53 Alazne

Aizu etxekoandre!, PERFUMERIA APAINKETA ETA KOSMETIKAN ari den frantziar multinazional batek EMAKUMEZKOAK BEHAR DITU. Salmenta zuzena. Diru etorri oso ona. Muestrario bikaina publizitatez lagundua. Aukera ederra zuretzat. Deitu arratsaldeko 7etatik aurrera.
☎ (948) 51 05 06

31 urteko neska bat naiz eta etxeko lanak, umeak zaindu, garbiketa lanak eta antzerako lanak egiteko prest nago.
☎ 17 17 40.

EDOZEIN TESTU moeta ORDENAGAILUZ pasatzen da. Grafikoak ezartzeko aukera. Deitzeko orduak: 14:00-16:00 eta 20:00-22:00
☎ 74 22 77 Iratxe

Salerosketak

Ford Escort gorria saltzen dut. SS 0883 AJ
☎ 74 15 24

"Catusa" 4,20m.tako karabana bat salgai dut.. Ondo zainduta.
☎ 74 12 95 Pello

Lehenengo jaunartzeko HABITO BAT SALTZEKO EDO LAGATZEKO daukat.
☎ 74 27 66 (Tere)

FIESTA XR2-i SALGAI SS-AG. 40.000 km. Gutxi ibilia. Extra guztiak. Prezio egokia.
☎ 74 33 51

GARAJE BAT SALTZEN da. Santa Ana 46. Arraiaduna. 1.600.000
☎ 74 11 30 Rosa

Bestelakoak

Karitasek LO EGITEKO ZAKU BAT BEHAR du.
☎ 74 15 09 / 74 12 57

Karitasek ERROPAK GORDETZEKO ARMAIRU BAT BAT BEHAR du.
☎ 74 15 09 / 74 12 57

MARTXOAN

Hildakoak


- ▶ Eusebio Errasti Iriondo (79 urte) Martxoak 1
- ▶ Rosa Maria Urain Arakistain (32 urte) Martxoak 3
- ▶ Pako Juaristi Iriondo (74 urte) Martxoak 4
- ▶ Joaquina Mambrona Olano Martxoak 21
- ▶ Felisindo Cid Gallego (70 urte) Martxoak 27
- ▶ Eugenia Mediavilla Jubete (84 urte) Martxoak 29

Ezkondak

- ▶ Aitor Lorenzo Andrade eta Ana Maria Ruiz Ruiz (martxoak 11)

Jaiotakoak

- ▶ Julen Cid Alzibar (martxoak 5)
- ▶ Iñaki Konde Artolain (martxoak 27)



MEKANOSA

Errosario 30
tel: 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

Andoni Tellabide S.L.

ITURGINTZA

- Berogailuak • Suteen aurkako instalakuntzak
- Gas instalakuntzak

Azpilgoeta 19.
☎ 75 50 62 MENDARO

ORTOPEDIA

ARRIETA

Bidebarrieta 4, Eibar
Tel. 11 84 10



Mutua General de Seguros

ISTRIPU ASEGURU MODULARRA

Lasai bizitzeko

Pedro Muguruza 4 behea. ELGOIBAR. ☎ 74 26 99

8 OSTIRALA

18,30 ODOL ATERALDIA

✓ Odol Emaileen egoitzan.
(P.M. Urruzuno 8).

19,00 PINTURA ERAKUSKETA

Pello Ezkurraren margoak.

✓ Kultur Etxean.
Apirilak 24ra arte.

22,00 ZIRKO TEATROA

"Teatro de la comedia"

✓ Santa Ana kalean (Konportan).

22,15 ZINEA

"Todos a la carcel"

Zuzendaria: Luis Garcia Berlanga.
Aktoreak: J. Sazatornil, J. Sacristan eta A. Gonzalez.
✓ Udaletxeko Biltzar aretoan
Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba.

9 LARUNBATA

16,00 GARE-REN BILERA

✓ Kultur Etxean

10 IGANDEA

10,00 MOUNTAIN-BIKE TRABESIA

✓ Irteera Mintxetan

19,30-22,15 ZINEA

"Todos a la carcel"

✓ Udaletxeko Biltzar aretoan
Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba.

11 ASTELEHENA

22,15 ZINEA

"Todos a la carcel"

✓ Udaletxeko Biltzar aretoan.
Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba.

18,00-20,00 AKUARELA IKASTAROA

✓ Egur Arte tailerlean (Ubitarte).
Antolatzailea: Egur Arte Tailerra.
29ra arte.

20,00 ANDRAIZEREN BILERA

✓ Kultur Etxean

12 ASTEARTEA

17,00 SUKALDARITZA IKASTAROA

✓ Izena emateko: Plazako Batzokian 6etatik 8etara.
Antolatzailea: Elgoibarko EAJ

14 OSTEGUNA

22,15 ZINEA

"Todos a la carcel"

✓ Udaletxeko Biltzar aretoan.
Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba.

15 OSTIRALA

20,35 ELKARRIZKETA EZTABAIDA

Gaia: Intsumisioa eta epaiketak
Hizlariak: Intsumiso bat, NIESEko guraso bat eta abokatu bat.
Moderatzailea: Elgoibarko Talde Antimilitaristako kide bat.
✓ Kultur Etxean
Antolatzailea: Elgoibarko Talde Antimilitarista.

21,00 BERTSO AFARIA

Bertsolariak: Sebastian Lizaso eta Millan Telleria.

✓ Kimetz Elkarte
Antolatzailea: Kimetz Elkartea.

22,15 ZINEA

"Madregilda" Espainia 1993

Zuzendaria: F. Regueiro.
Aktoreak: Juan Echanove eta Jose Sacristan.
✓ Udaletxeko Biltzar aretoan
Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba.

txandak

FARMAZIAK:

9, larunbata: Etxeberria
10, igandea: Etxeberria
11, astelehena: Ormazabal
12, asteartea: Ormazabal
13, asteazkena: Ormazabal
14, osteguna: Ormazabal
15, ostirala: Yudego

OKINDEGIA:

10, igandea: EIZAGIRRE

ZINEA

Todos a la carcel

Administrazioak 80 milioi zor dizkio "Bermejo Sanitarios" izeneko enpresaren jabeari. Bide burokratikoetatik dirua eskuratzea ezinezkoa zaionez, bere koñatu Marianok Osasun Kulturako idazkari ordearengana zuzenean jotzea gomendatzen dio. Idazkari ordeak gartzela batera bisita egingo duela iragarrita dauka eta enpresa gizona bertara joango da idazkari ordearekin hitz egiteko asmoz. Gartzelan sekulako zoroaldia piztuko da.

ZINEA



sake

KOPERATIBAK

INEKO


ITZIARKO NEKAZARI KOOPERATIBA

- Ongarriak • Haziak • Ureztatze sistemak •
- Baratze eta jardinerako tresnak •

■ BEZERO BAKOITZARI EGOKITUTAKO PENTSUAK ETA ELIKAGAIK

■ ZILO BOLAK EGITEKO PLASTIKOA

SILOTE



- BELARRA ENSILATZEKO PLASTIKOEN PRODUKZIOAN NAGUSI
- KOLOREAK: ZURIA ETA BELTZA.
- HIRU KAPAKO PLASTIKOA GUK BAKARRIK EGITEN DUGU.
- KALITATEA ETA PREZIOAREN ARTEKO ERLAZIORIK ONENA.

EZ DIEZAZUTELA ZIRIA SARTU IMITAZIOREN BATEKIN

Itziarko industrialdea E-13 ITZIAR - DEBA Tel: 19 93 00 - 19 93 30 Faxa: 19 92 70

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

CRISTOBAL, GOMEZ, OTALORA ETA RUIZ DK.ak

Honako aseguru etxeekin lan egiten dugu: Igalatorio Medico Quirurgico, Asisa, Capisa, Previasa, Lagun Aro, Diputación Mediciatc eta partikularrak.

- ▶ Azterketa ginekologikoak
- Minbiziaren aurretiko diagnostikoa
- ▶ Haurdunaldiaren kontrola
- Txekoak
- ▶ Bularretako gaitzen unitatea
- Mamografiak
- ▶ Antzutasuna
- Antisorkuntza
- ▶ Menopausiaren tratamendua

*Guzti hau
Eibarren bertan
urrutirago joan
gabe!!*

Urkizu Pasealekua, 11
(Orbeako dorrea lehenengo solairua)
☎ 12 10 21 - 12 02 00 EIBAR

PASSAT
BERRIA



**Buruarekin erosten duenak,
bihotzarekin ospatzen du.**



Kalitatea detaileek ematen dute.



**Zaletasun handien atzean
arrazoi onak egoten dira beti.**